

JOSE MIGEL ZUMALABE MENDIBURU (1906-1992)

Jose Migel Zumalabe hil zenean, artikulu mamitsu eta leialak agertu ziren kazetarien esparruan euskaltzale honi buruz. Besteak beste, benetan aipagarri Karlos Santamariak, Joseba Intxausti eta Manuel Irigoienek idatzitako lanak. Ikusirik aipamen horiek guztiak ongi mereziak zituela Jose Migel Zumalabek, euskaltzainok ere tajuzko aipamen bat zor genion beroni eta eskaini ere nahi diogu eskaini, gerorako aipamena gurean utziz.

Gaia ongi eta azkar bideratzeko familiakoengana jotzea zela, pentsatu genuen, biderik erosoena eta emankorra tajuzko zerbait lortzeko, etxeok izaten direnez, batez ere hildakoen lana hurbiletik jarraitu dutenak, lanik gutxienarekin etekin aberatsena ematen dutenak honelakoetan. Esan eta izan. Koro Zumalabek, Jose Migelen alabak —geuk hala eskaturik—, eskuratu digu informazioa eta hainbat ikuspegi. Pozik gaude eskaini digun laguntzaz, eta gure egiten dugu Korok aditzera emaniko guztia.

1. BIZITZAKO LEHEN URRATSAK

Donostiako Kale Nagusian jaio zen, 1906ko irailaren 24ean, bost senideren artean bera zelarik bigarrena. Anaia zuen Juan Agustin Zumalabe, Eusko-Ikaskuntzako Idazkari Nagusia izan zena 1978tik 1980ra. Gurasoak izan ziren: aita, Felipe, donostiarra, eta ama berriz, Dolores, donostiarra hau ere.

Lanaren aldetik bi disziplina, matematika eta eraikuntza, eta zaletasunaren aldetik beste bi ikaskari, pintura eta euskara: hauek izan dira bere jardunaren ardatzak bizitza guztian zehar.

Aparejadore titulua Madrilen eta matematikako lizentziatura Zaragozan atera zituen. Azkue Bibliotekako fitxategian, berak izenpeturik estudioei buruz esaten da: “Ciencias Exactas”en lizentziatua eta Arkitekto teknikoa.

Haren emaztea Asentxi Goenaga Arteaga da, 1946.urtean ezkondu zirelarik Donostian, bi seme-alaba mundura ekarriz, Koru eta Jose Migel, euskal kazetari-tzarekin lotua azken hau.

2. MARGOLARITZAN

Gaztetandik izan pinturarako grina. Hala esaten omen zion amak: “igarri dizut zein dan zure kuttuna, pintura”. Donostian, 1920ko hamarkadan, arte plastikoaren moda pilpilean zegoela, maiz antolatuta ziren artista gazteentzako lehia-

ketetan, "Certamen de Artistas Noveles" izenekoetan, behin baino gehiagotan parte hartu zuen, eta 1923tik 1931ra bitartean sarritan irabazi zituen sariak, horietako bat lehenbizikoa.

Zahartzarora, lan profesionalak neurri batean utzi zituenez geroko denbora ere, oparora izan zuen pintura lanetan. Bere 70 urteen inguruan, garaiko pinturaren "uhinean" ote zogoen ikusi nahiz edo, berriro jo zuen zertamenetara bere lan berri batzuk aurkeztera, eta jaso zuen onduan ere sariren bat edo beste, 1983an bakarkako erakusketa egin zuen Donostian. Eta dena dela, behinere ez zion zeharo utzi pintatzeari eta, aldizkari espezializatuen bitartez edota Paris, Madril edo Bartzelonako erakusketak ikusiz, alor horretako korrante nagusien aztarnak jarraitzeari ere utzi gabe.

"Kubista ezezaguna". Galdutako katanbegia da, Montes Iturriozengandik "UR" taldeareinoko edota paisaia abangoardistarainoko jauzia azaldu ahal izateko falta zitzaigun datu historikoa" (Edorta Kortadi). Eta "jarrera zabal eta aurrerakoia duena beren margolaritzan" (Txillida). Honelatsu mintzo dira oraingo arte-kritikalariak ¹.

3. HIZTEGIGINTZA

Bere euskaltzaletasuna bizi guztiko eta alor guztietako konstantea izan da, baina ordu asko eta ahalegin handiak eskaini zizkien eginkizun batzuk aipatuko ditugu hemen.

Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1973ko maiatzaren 25ean eta hiztegi-gintzako lanak egin zituen erakunde honetan.

1975ean argitaratuko zen *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* osatzeko batzordean parte hartu zuen, Xalbador Garmendia, Aingeru Irigarai, Carlos Santamaria eta Maria Pilar Lasarterekin batera, hiru bat urte iraun zuen hartarako astero, ostegunero, bilerak eginez.

Geroago, *Zortzi urte arteko ikastola hiztegiaren* ondoren, alorkako hiztegiak jorratzen hasi zirenean, berak Matematikakoari heldu zion, Carlos Santamaria, Jesus Mari Gofii, Mikel Zalbide eta Maria Pilar Lasarterekin batera. Batzorde honek larunbat goizetan izaten zituen bilerak eta bere lanaren zati bat *Euskera* aldizkarian argitaratu zen.

Hiztegi-gintzako lanetan aipatu beharrekoa da arkitekturakoa ere. Colegio de Architectos Vasco-Navarro delakoak egindako eskari baten ondotik. Euskaltzaindiak arkitekturako hiztegia egiteko lana martxan jartzea erabaki zuen Lafitte, San Martin eta J. M. Zumalabek osatutako batzorde baten esku jarri zuen eta honek bilaketa eta bilketa lanaren arduradun Zumalabe izendatu ondoren, honek Joxe Mari Aranburu, Iñaki Azkune, Andoni Sagarna eta Mikel Zalbiderekin burutu zuen lan hori, bilerak aldi batez behintzat. Elhuyarren egiten zituztelarik; lan honen aurkezpen bat Euskaltzaindian egin zuen, 1973ko irailaren 28ko bileran (ikus *Euskera* 19(1974), 291-295 or., eta emaitza euskara-erdarako 1.500 fitxa

¹ M. IRIGOYEN, "Zumalabe pintorea oroituz", *Egunkaria*, 1992-3-5, 24. or.

inguru eta argitaratu gabe gelditu zen gaztelania-euskara hiztegi bat izan ziren, 769 termino jasotzen dituen hau, gero UZEIk bere arkitektura hiztegia egiteko aurrematerial bezala erabiliko zuena.

Lan horiek 1978a arte iraun zuten, garai hartako aldaketa politikoarekin batera euskal hiztegiak beste bide batzuek, profesionalizatuak, hartu bait-zituen, Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* proiektuarekin eta UZEIren sorrerarekin. Erakunde hau 1977an sortu zen eta, bi urte inguruan antolaketa lanetan aritu ondoren, 1979ko maiatzaren 25ean izendatu zuen Joxe Migel Zumalabe lehenbiziko lehendakari; horretan jarraitu zuen lau urtez, 1983ko maiatzaren 27a bitartean. (Ikus 6, puntua).

4. SANTO TOMAS LIZEOA

Garai hartako euskarazko irakaskuntza 9 urte bitartekoa besterik ez zenez gero, eta ikastoletako umeek segidarik ez zutela ikusirik, 1959-60 ikasturtean ireki zen Santo Tomas Lizeoa sortzen lan haundia egin zuen, Joxe Mari Lasarte, Karlos Santamaria eta Luis Mitxelena lagun zituela, xede horretarako zena eta zuena emanaz. Dirua jarri, dirua bildu, obrak egin, klaseak eman, lehenengo ikasleak izango zirenak bilatu, irakasleak ere bai —hasieran eta geroago— eta Santo Tomas Lizeoaren gaurko eraikin haundia egin zen arteko urteetan, momentu bakoitzeko gestioak eta era guztietako gauzak, denetan buru-belarri ibili zen.

Karlos Santamariak dioena nahiko esanahitsua da alderdi honetan: “Berak asmatu zuen proiektu hau, eta ez bakarrik asmatu. Lizeoa martxoan jartzeko lan guztia egin bait zuen. Eguneroko klaseak expikatzen zituen: bere poltsatik beratik ordaintzen ziren Lizeoaren gastuak eta zentro berriari agertzen zitzaizkion problema guztiei arpegi eman zien luzaro, Lizeoa seguru izan arte” (*Egunkaria*)².

5. ZERUKO ARGIA

Gerra ondoan *Zeruko Argian* aldizkariak izandako noizbehinkako agerraldien ondotik berriro jarraitasunez kalera ateratzea lortu nahiz bultzada berria eman zion taldean ere parte hartu zuen Joseba Salegirekin, beste batzuen artean, 1963ko martxoan atera zen aldi honetako lehena.

6. UZEAREN LEHENENGO LEHENDAKARIA

(Hala izan zen, 1979ko maiatzetik 1983ko maiatza arte). Ez ziren garai samurrak izan: eguneroko ogia, buru-hausteak, ekaitz zakarren bat... “Joxe Migelek, bere bakea batera galdu gabe, lemari zaharren zuhurtziarekin aholkatu eta gidatu gintuen, eritasunak sobera ahulduta lehendakaritza hura guztion eskutan utzi zuen arte” (Joseba Intxaustik)³.

² K. SANTAMARIA, “Joxemiel Zumalabe, euskaltzale handia”, *Egunkaria*, 1992-2-15, 3. or.

³ J. INTXAUSTI, “Joxe Miguel Zumalabe”, *Egunkaria*, 1992-2-15, 3. or.

7. AZKENA

Jaso nahi ditu hemen Euskaltzaindiak Jose Miguel Zumalabez, etxekoan ikuspegia, eta haren lankide eta lagunek hura hil zenean esandakoak:

– Etxekoan iritzia “Bere irudia osatzeko ezin aipatu gabe utzi bere nortasunaren eta izaeraren berri ematen duten beste ezaugarri batzuek. Izan ere, fede haundiko gizona izan zen eta etxekoia, eta, bai bere buruarekin eta bai inguruan zituenekin, zuzena eta zorrotza izateko fama zuen”.

– “Denbora hauetako euskaltzalerik handienetakoa izan da, batere dudarik gabe. Bere bizi guztiaren zehar euskara gorde eta bizkortzeko lan izugarria egin zuen. Euskararen biziak asko zor dio benetan” (Karlos Santamariak esanikoa).



– “Benetan ‘Euskararen Zalduna’ izan dela esango nuke, bakoitzari berea aitortuz, ondokoen lanak maitatzen jakinez, ahal zuenetan eskuzabalki emanez, eta batez ere euskalgintzaren arazo larrienak argi ikusi eta zeregin berriak uler-tuz” (Joseba Intxausti).

– Hauek dira harekin lana egin zutenen iritzi baikor eta leialak. Guk pozik jasotzen ditugu hemen, hori guztia buruz eta bihotzez aitortuz eta oroigarri gisa hemen jarriz. Euskaltzaindiko Artxiboan karpeta bat uzten dugu zabalik, Jose Migeli eskainia. Eta ahaleginak egingo ditugu agertzen diren hari buruzko gauza berriak jasotzen. Berari ezin-hobeto dagokion omenaldi praktikoa egin nahi diogu honekin, gerorako jaso z gure euskaltzale handiaren oroitzapena.

Goian bego, Jose Migel Zumalabe Mendiburu, euskaltzain urgazlea.

Juan M. Lekuona
Donostian, 1992-X-30